

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAREN GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK ETA GIZA ESKUBIDEEN MEKANISMOAK *ikuspegi feminista batetik*

GIH, ICERD & ICMW

Women's Major Group

Garapen Iraunkorrerako 2030

Agendak, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) izenez ere ezagunak, mundu mailako 17 helburu jasotzen ditu, elkarrri lotuak eta berariaz diseinatuak "ekintza plan bat aurrera eramateko eta guztientzat etorkizun hobea eta iraunkorragoa lortzeko". Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartu zuen 2015ean, eta asmoa da helburuak 2030erako betetzea.

Arraza-bazterkeria beste bazterkeria-mota batzuekin ere gertatzen denez, pobrezia eta berdintasunik eza areagotzen dituen faktore garrantzitsua da; beraz, GIHak ez dira beteko arraza-bazterkeriaren auzia landu eta deuseztatu ezean.

Sarritan, migratzaileek beren jatorriko herrialdean geratzeko edo handik irteteko hartzen dituzten erabakietan eta horretarako dituzten aukeretan, zenbait faktorek eragiten dute, hala nola hauek: pobrezia; desberdintasunak (bai ekonomikoak eta bai generoari, arrazari, erlijioari nahiz etniari lotuak); aukera izatea lan duina, hezkuntza, ura eta energia eskuratzeko; gizarte seguru eta baketsuan bizitzea; eta klima-aldaketa. Hain justu, GIHen bidez konpondu nahi diren auzi berberak dira horiek. GIHek barnean hartzen dituzten auzi askoren aurka eginez, beraz, aurre egiten zaie migrazioa -batez ere migrazio derrigortua- eragiten duten arrazoi estrukturaleri.

ZER DIRA GIH-AK?

ZEIN DA GIH-EN, ICERD-EN ETA ICMW-EN ARTEKO LOTURA ETA INTERAKZIOA?

KONTUAN HARTU BEHARREKO TRESNAK

ZER DA ICERD?

Arraza Bazterkeriaren Modu guztiak Deuseztatzeari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (ICERD, [ingelesez](#)) NBEn Batzar Nagusiak 1965eko abenduan ebazpen bidez onartu zuen akordio bat da; 1969ko urtarrilaren 4an sartu zen indarrean, eta orain arte 182 gobernu berretsi dute. ICERD berretsi duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **Arraza Bazterkeria Deuseztatze Batzordeari (CERD)**, normalean bi urtean behin. CERD batzordea aditu independentez osatuta dago, eta bestelako ikuskaritza-eginkizunak ere baditu, hitzarmenen arabera; esaterako, eginkizun hauek: **alarma goiztiarrerako prozedura, estatu-barneko salaketan** ikuskaritza, eta **norbanakoan salaketan** ikuskaritza.

ZER DA ICMW?

Langile migratzaile guztien eta haien familiakoan eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Hitzarmena (ICMW, [ingelesez](#)) NBEn Batzar Nagusiak 1990eko abenduan ebazpen bidez onartu zuen akordio bat da; 2003ko uztailearen 1ean jarri zen indarrean, eta orain arte 56 gobernu berretsi dute. Hitzarmenak langile migratzaileen eta haien familien babesa zaintzen du. ICMW sinatu duten gobernuak aldian-aldian txostenak aurkeztu behar dizkiote **Langile Migratzaile Guztien eta haien Familiakoan Eskubideak Babesteko Batzordeari** (CMW, [ingelesez](#)), normalean bost urtean behin. ICMWren 77. artikulua aukera ematen du CMW batzordeak jaso eta azter ditzan ICMW urratzen duen estatu bati buruz norbanakoek egiten dituzten komunikazioak; dena den, oraindik ez dago indarrean: 10 estatu kidek artikulua berresteko adierazpena egiten dutenean sartuko da indarrean. CMWk **luzkin Orokorrak** ere aurkezten ditu, bere lanarekin lotuta duten gaiak buruz eta Hitzarmenaren xedapenen edukia gaineke interpretazioari buruz.

ICERD

IMADR ([ingelesezko siglak](#)) erakundeak egindako **"Gizarte zibileko eragileentzako gida"** delakoak informazio baliagarria eskaintzen du ICERD/CERD mekanismoei buruz eta haien erabilera eraginkorrari buruz, bai gizarte zibileko erakundeak eta bai indigenen, gutxiengo eta migratzaileen eskubideak defendatzen dituzten aktibistek erabil ditzaten.

CERD batzordeak Garapen Iraunkorrari buruzko Goi Mailako Foro Politikoan 2017an aurkeztutako **azken txostena**.

CERD batzordearen alarma goiztiarreko neurrien **jarraibideak** aukera ematen dute informazioa iturri fidagarrietatik jasotzeko, eta hala, arraza-bazterkeriaren arriskua dagoela edo bazterkeria-mota hori gertatzearen ebakuntzia dagoela erakusteko, eta CERDei elkarriketa abiatuko du estatu horrekin, bazterkeria hori prebenitzeko edo deuseztatzeko.

ICMW

LANEren online baliabidea: **Laneko Migrazioarekin lotutako GIHen Helmuga azpimarragarriak**.

Bisita ezazu Migrazioari buruzko Munduko Datuen Ataria; badu atal bat, **GIHetarako Migrazioari buruzko Datuak** izenekoa, eta hor, deskribatzen da nola dagoen lotuta GIH bakoitza migrazioarekin. Horrela, bakoitzaren datu azpimarragarri gehiago ikasiko dituzu.



NORA JO DEZAKEZU?

Emakumeen Talde Nagusiaren eginkizunetako bat da gizarte zibileko erakundeek –giza eskubideen alde egiten dutenek, garapen iraunkorrean oinarrituta eta arreta emakumeen giza eskubideetan jarrita– NBEen parte-hartzea eta beren ekarpena egitea erraztea.

ICERD

Bazterkeria eta Arrazakeria Mota Guztien aurkako Nazioarteko Mugimendua (IMADR) nazioarteko GKE bat da, bazterkeria eta arrazakeria deuseztatzeko helburua duena; nazioarteko elkartasuna eskaintzen die baztertutako gutxiengoei, eta giza eskubideen nazioarteko sistema sustatzen du. **Laguntza eta gaikuntza eskaintzen die gizarte zibileko erakundeek, CERDein estrategikoki jardun ahal izan dezaten.**

AfroResistance Ameriketako giza eskubideen, demokraziaren eta arraza-justiziaren inguruko antolamendua eta heziketa eskaintzeko helburua duen erakunde bat da. **Laguntza eta sostengua ematen die mugimendu eta erakundeek, aldaketa estrategikoagoa eta irismen handiagoa lor dezaten, beren kanpo-jardunbideak bat etorraraziz beren barne-balioekin, arraza- eta genero-justiziaren ikuspegitik.**

ICMW

Migrazioei buruzko Nazioarteko Erakundea (MNE) NBEren gobernuarteko erakundea da, gobernuetako, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko erakundeekin lankidetzan estuan lanean ari dena migrazioen arloan.

MUGIMENDUEN AHOLKUAK

Batzordeak gobernuari egiten dizkion inplementazioen eta gomendioen berri izan dezakezu, parlamentarien bidez, tokiko gobernuen bidez eta are ministerioen bidez ere.

CERD batzordearen alerta goiztiarreko neurriak erabil ditzakezu auzi bat planteatzeko eta Batzordearen arreta pizteko, eta hala, arraza-bazterkeriako kasu bat prebenitzeko, gertatu baino lehen.

Gobernu bati azterketa egiten ari badira, dela CERDen edo CMWren Batzordearen bidez, dela GIHen Borondatezko Azterketa Nazionalaren bidez, biak aldi berean edo une desberdinetan, emakumeen giza eskubideen aldeko erakundeek azterketa horiek baliatu ditzakete; esaterako, honela:

- Txosten paraleloak egin ditzakete CERD edo CMWrako, eta txosten alternatibo bat Borondatezko Azterketa Nazionalerako, modu osagarrian, HEHren txosten paraleloetan GIHen konpromisoak jasota, eta alderantziz; edota batak nahiz besteak erabil dezake txostena, beste azterketa-prozesuetan jaso ezin diren hainbat auzi nabarmentzeko.
- Berriskupenen eta txosten alternatiboen arteko aldian aldaketarik gertatuz gero, azken txostenean gehitu dezakete.
- GIHen txosten alternatibo bat aurkez diezaioke CERDi edo CMWri, azterketan eta gobernuaren azken oharretan aintzat har dadin.
- CERDen edo CMWren azken oharrek edo gomendio orokorrak erabil ditzakete, nork bere gobernuaren aurrean GIHak sustatzean.

ICERD

Egia bada ere zenbait GIHek eskatzen dutela arrazan oinarritutako berdintasunik eza deuseztatzea (10. GIH, 2. helmuga) eta lege baztertzailak atzera botatzea (10. GIH, 3. helmuga eta 16. GIH, B helmuga), GIHek ez dute deskribatzen berariaz “neurri berezien” erabilera, arrazan oinarritutako bazterkeriari eta berdintasunik ezari aurre egiteko. ICERDe, berriz, berariaz aipatzen du neurri berezi horien erabilera 1.4 artikuluan, honako hau esanez: “neurri bereziak hartuko dira, helburu eskusibo batekin: babes hori beharrezkoa duten arraza taldeen, talde etnikoen edo norbanako zehatzen aurrerabide egokia ziurtatzeko”.

ICMW

Giza eskubideen 9 tresna nagusietatik, CMW da berrespen gutxien bildu dituen nazioarteko hitzarmena. Hala ere, GIHetako hainbat helburu eta helmugatan berariaz aipatzen dira migratzaileen zenbait eskubide, eta horiek erabil daitezke, gobernuak ICMW berretsi ez badu ere. Esaterako, 8. helburuaren 8. helmugak honela dio: “laneko eskubideen babesa, eta laneko ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileak barne, bereziki emakume migratzaileak eta enplegu prekarioak dituzten pertsonak”. GIHe, adibidez, aipatzen dute gizarte-babes egokirako sistemak “guztientzat” izan behar dutela (1. helburua, 3. helmuga) eta osasun-zerbitzuek ere guztientzat izan behar duela (3. helburua, 8. helmuga), baina ICMWk ez bezala, GIHek ez dituzte esplizituki aipatzen langile migratzaileak eta haien familiak, eta zerbitzu horietarako sarbidea ere ez diete bermatzen. ICMWk, berriz, esplizituki aipatzen du (27. eta 28. artikuluetan) estatuaren betebeharra dela horiek bermatzea langile migratzaileentzat eta haien familientzat.